



FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUDIA

Régimen de funcionamiento interno

HITZAURREA

Lakuntzako Udal Musika eskolak ibilbide luzea dauka jadanik. Egun, 90 ikasle aritzen dira musika ikasketak burutzen.

Lakuntzako Udalak musika eskolaren arautzeari ekin nahi izan dio (egun ez dago musika eskolaren nondik norakoak arautzeko baliabiderik). Arautze prozesu honetan guraso eta ikasleok parte hartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Nola hartu dezakezue parte? Araudi honi zuen ekarpenak eginez.

Arautzea izanen da lehenengo pasua, hurrengoa, gobernu organoetan parte hartuz musika, kultura eta Lakuntza gehiago aberasteko tresna bat bilakatzea San Saastin Musika Eskola. Ekin lanari!

Ekarpenak, aldaketak,... aurkezteko epea: ABUZTUAK 29

El Ayuntamiento de Lakuntza ha empezado el proceso de regular la Escuela de música San Saastin (ahora mismo no hay ningún instrumento que regule su funcionamiento). Hoy en día 90 personas están cursando sus estudios musicales.

Queremos que madres, padres y alumn@s tomeís parte en este proceso ¿Cómo? Realizando vuestras aportaciones.

El primer paso será la de regular la escuela; el siguiente, participar en los órganos de gobierno que se estalezcan e intentar convertir a la escuela de música en un instrumento que contribuya a enriquecer la música, la cultura y Lakuntza.

Plazo para presentar aportaciones, cambios,...: 29 de AGOSTO

LAKUNTZAKO UDALA

2008ko uztaila

SAN SAASTIN MUSIKA ESKOLAREN FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUBIDEA

1.MUSIKA ESKOLAREN DEFINIZIOA

1.1.XEDE PEDAGOKIOAK

1.2.ESKOLA ELKARTEA

1.3.IKASTETXEAK ERABILTZEKO ONDASUNAK

1.4.APLIKAZIO ESPARRUA

2.EGINKIZUN PEDAGOGIKOKO ORGANOAK

2.1.IKASTETXEKO ORGANOAK

2.2.ZUZENDARIAREN ESKUMENAK

2.3.ZUZENDARIAREN ORDEZKAPENAK

2.4.IKASKETABURUAREN ESKUMENAK

2.5.IRAKASLEEN KLAUSTROA

2.6.IKASLEEN GURASOEN BILERAK

3. ESKOLA ELKARTEAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

3.1.IKASLEEN GURASOEN ESKUBIDEAK

3.2.IKASLEEN GURASOEN BETEBEHARRAK

3.3.IRAKASLEEN ESKUBIDEAK

3.4.IRAKASLEEN BETEBEHARRAK

3.5.HUTSEGITEAK ETA ARAU HAUSTEAK

3.6.EZ IRAKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.7. ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK, EGINKIZUNAK, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

3.8.MATRIKULAZIOA. DEUSEZTAPENAK

4.IKASTETXEAREN MENPEKO MUSIKA TALDEEN FUNTZIONAMENDUA

4.1.KIDEAK

4.2.TALDEKIDEEN ESKUBIDEAK

4.3.TALDEKIDEEN BETEBEHARRAK

5.EGUTEGIA ETA ANTOLAKUNTZA AKADEMIKOA

1. Musika Eskolaren definizioa

1.1.Xede pedagogikoak.

Musika Eskola Lakuntzan musika arloan dagoen eskariari erantzuteko sortu da, bai beren hezkuntza orokorraren osagarri musika hezkuntza jaso nahi duten ikasleendako, bai, beren gaitasuna eta ardura direla eta, prestakuntza hori zabaldu nahi dutenendako gero batean lanbide izan dezaten.

Plan Pedagogikoan Eskolan eman beharreko eduki pedagogikoak bildu dira.

-Hezkuntza jarduerak ikaslearen nortasunaren garapena eta bizimodu demokratikoa izan behar dituzte helburu, baita ikasleak aukera berdinak izanda lan-mundurutzen laguntzea ere.

-Hezkuntza tolerantzia eta askatasunean, errespetuan eta partaidetza demokratikoan gauzatuko da.

-Ikastetxeak ikaslearen musikarako sentimena, trebetasun teknikoa eta haren sormena garatu behar ditu.

-Ikastetxeak bertako kultura sustatu eta bultzatu behar du eta "Euskal Kurrikulumean" bildutako errepertorioa kontutan hartuko ditu.

-Herriko bizitza kulturala aberastea izanen da ikastetxearen helburu nagusietako bat:
San Saastin musika eskolak Lakuntzan kultura arloan antolatuak dauden taldeekin elkarlanean arituko da eta musika arloan diuzten gabezi eta eskaerei irtenbidea ematen ahaleginduko da.

Musika eskolak Festa Batzordean parte hartuko du eta herriko festa ezberdinetan musika eskolak bere ikasleen bitartez presentzia izateko ahalegina eginen da.

San Saastin Udala Musika Eskolak herritarrei zuzenduak egonen diren emnaldiak antolatu beharko ditu.

1.2.Eskola-elkartea.

-Eskola komunitatea ikasleek, gurasoek, irakasleek eta ez-irakasleek osaturik dago. Haren kideen arteko harremanak ahalbidetu eta erraztuko dira.

-Eskola komunitateko kide guztiek dute beren ordezkarien bidez Kudeaketa Pedagogikorako Batzordearen erabakietan parte hartzeko eskubidea.

-Denek dute beren iritziak adierazteko eta, pertsonen duintasunari ahalik eta errespetu gehien gordez, horiek defendatzeko eskubidea.

-Ikastetxea komunitatearen zerbitzaria da; hortaz, hartan txertatzen ahaleginduko da, hezkuntza, kultur eta gizarte mailako bestelako erakundeekin harremanak izanez.

-Hezkuntza jarduera herrien arteko bakea, lankidetzeta eta elkartasuna, eta naturarenganako errespetua izanen ditu helburu.

1.3. Ikastetxeak erabiltzeko ondasunak.

-Musika Eskolaren ondasunen kudeaketa Musika Eskolako Gobernu Batzordeari dagokio. Eskola-elkarteko kideek ondare hori errespetatu eta zaindu beharko dute eta ahalik eta gehien probetxatzen ahaleginduko dira.

-Ikastetxeko zuzendariak baimendu ezik, debeku da haren partiturak edo moldaketak lagatzea edo fotokopiatzea ikastetxetik kanpora erabiltzeko badira, hartzaileak ikastetxekoak izan ala ez.

1.4. Aplikazio esparruak.

-Barne Araubiderako Erregelamendu honen arauak eskola-elkarteko partaide guztiak ukitzen dituzte, eta ikastetxeko eremu fisiko osoan dute indarra, baita beste nonahi ere, irakasleak, zerbitzuetako langileak, ikasleak edo haien gurasoak badira ikast etxeak antolatutako jardueretan.

-Barne Araubiderako Erregelamendu honek, onesten denetik, epe mugagabeen izanen du indarra, Musika Eskolako Gobernu Batzordeak aldatu edo berritu ezik.

2. Eginkizun pedagogikoko organoak

2.1. Ikastetxeko organoak.

Ikastetxeak organo hauek izanen ditu:

-Kudeaketa Pedagogikorako Batzordea.

-Zuzendaria.

-Ikasketaburuak.

-Irakasleen klaustroa.

-Ikastetxeko zuzendaria irakasleen klaustroak proposatuko du eta Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeak onartu eta Musika Eskolako Gobernu Batzordeak berretsiko.

Haren agintaldiak bi urte iraunen du.

-Ikasketaburua eta idazkaria Irakasleen Klaustroak hautatuko ditu eta Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeak berretsiko.

Haien izendapenek Ikastetxeko zuzendariarenak adina iraunen dute.

2.2. Zuzendariaren eskumenak.

-Araudia eta ordenantzak bete eta betearaztea.

-Ikastetxeko jarduera pedagogikoa zuzendu eta koordinatzea.

-Organo kolegiatuen erabakiak betearaztea, bere eskumenen esparruan.

-Eskola-elkarteko sektore ezberdinen partaidetza koordinatzea, bakoitzaren eskurantzak ahalik eta modurik eraginkorrenean betearazteko behar diren baliabideak paratuz.

-Irakasleen klaustroarekin batean ikastetxeko jardueren urteko planaren proposamena prestatzea.

-Ikastetxearen eta bere inguruko erakunde eta lantokien arteko harremanak sustatu eta bultzatzea:

Hezkuntza arloan ardurako lanak egiten dituzten erakundeekin (Luis Fuentes Eskola, Andra Mari Ikastola)

Kulturaren rlon antoltuak dauden taldeekin (Elai-Alai dantza taldea, Erraldoi eta buruhandien konpartsa)

Udaleko batzorde ezberdinekin (Festa batzordea eta Kultura Batzordea)

Sakanako beste herrietako musika eskolekin: Irurtzun, Etxari Aranatz, Altsasu eta Olaztiko musika eskolekin.

-Zuzendaritza organo kolegiatu nahiz lagun bakarrekoei eta eskumena duten hezkuntza arduradunek eskatzen dizkieten argibideak ematea.

-Eskola-elkarteko sektore ezberdinei eta haiek ordezkatzeko erakundeei ikastetxearen biziari buruzko informazioa bermatzea.

-Irakasleek, administrazioko eta zerbitzuetako langileek, ikasleek eta ikasleen gurasoek biltzeko duten eskubidea erraztea, Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz.

-Irakasleen klaustroak espezialitate guztien gainean prestatzen duen urteko programazioa zuzentzea.

2.3. Zuzendariaren ordezkapenak.

Ezinbestekoetan, zuzendariak ikasketaburuari eginen dio bere eskumen guztien eskuordetza, egoerak dirauen bitartean.

2.4. Ikasketaburuaren eskumenak.

-Ikasleen eta irakasleen jarduera akademikoak koordinatu eta egin egiten direla zaintzea, ikastetxeko urteko jarduera programari dagokionez, eta zuzendariaren jarraibideei segituz.

-Ordutegi akademikoak prestatzea, gainerako organo lagun bakarrekoei laguntzaz, eta behar bezala betetzen direla zaintzea.

-Orientazio jarduerak eta ikastetxeari eragiten dioten sostengu zerbitzuen jarduerak koordinatzea, zuzendariaren jarraibideekin bat.

-Ikasleak ebaluatzeko lanen gainean Irakasleen Klaustroak ezartzen dituen irizpideak betetzen direla zaintzea.

-Irakasteko materiala zaintzea eta haren erabilera xedatzea.

-Eskola jarduera osagarriak programatu eta haien garapena koordinatzea, irakasleen klaustroaren eta Kudeaketa Pedagogikorako Batzordearen jarraibideei segituz.

-Zuzendariaren jarraibideei segituz, mintegi eta tutoretza ezberdinen funtzionamendua eta hezkuntza programazioa koordinatzea.

-Ekitaldi akademikoak antolatzea.

-Zuzendariak bere eskumenen barnean manatzen dizkion gainerakoak.

-Ikasketaburuaren funtzioak zuzendariak bete ditzazke irakasleen klaustroan hala erabaki ezker.

2.5. Irakasleen klaustroa.

-Ikastetxean zerbitzu egiten duten irakasle guztiek osatuko dute, eta hartan buru eginen du zuzendaritza taldeak.

Irakasleen Klaustroaren eskumenak:

-Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeari ordutegien programazioa, ikasle taldeen antolaketa, ikasgaien eta taldeen irakaskuntzaren banaketa eta irakasleen bestelako erantzukizunak proposatzea.

-Irizpideak finkatzea eta koordinatzea ikasleen ebaluazioaz eta errehabilitazioaz.

-Musika Eskolako zuzendariaren izendapena proposatzea.

-Ekimenak proposatzea, esperimentazio edo ikerketa pedagogiko eta didaktikoaren arloan.

-Ikasturte bakoitzeko emaitzak eta gora-beherak baloratzea, gai horretaz bilkura berezia eginez ikasturte bukaeran.

-Proposamenak egitea jakintzagai edo irakasgai berriak sartzeari den bezainbatean, baita bizi akademikoan eragina duten beste jardueraz ere.

-Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeari proposamenak egitea, jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoak, bidaiak, ekintza akademikoak, etab. egiteko.

Funtzionamendu arauak

Irakasleen Klaustroaren bileretan ondotik aipatzen diren funtzionamendu arauak gordeko dira:

-Klaustrora derrigorrez agertu behar duten haren kide guztiek. 1. deialdian quorumik ez baldin bada, 2.a ordu erdi gerorako egin dela ulertuko da.

-Bileren deialdia zuzendaritza taldeak eginen du, eta bera izanen da haietan buru. Deialdia bilera eguna baino 48 ordu lehenago eginen da, gai-zerrendarekin batean.

-Zuzendariak hezkuntza gaietan adituak direnak deitu ahalko ditu, bileretan aholkulari parte har dezaten.

-Klaustroak gehiengo arruntaz hartuko ditu erabakiak.

-Klaustroa hilabetean behin bilduko da gutxienez, baita zuzendariak edo kideen herenak gutxienez eskatzen duenean ere. Nolanahi ere, ikasturtearen hasieran eta bukaeran nahitaez bildu beharko da klaustroa.

-Klaustrokide batek idazkariarena eginen du eta bilkuraren akta eginen du, hurrengo bileran onetsi eta zuzendaritza taldeak ikus- onetsiko duena.

2.6. Ikasleen gurasoen bilerak.

-Zuzendariak gurasoen bilera orokorrerako deialdia eginen du ikasturte bukaeran, argibideak emateko.

-Gurasoen Elkarteak ikastetxeko lokalak erabil ditzake bere jardueretarako, beti ere ohiko eskola jardueri traba egiten ez badiete. Zuzendariari aurretik jakinaraztea izanen da horretarako baldintza.

3. Eskola-elkartearen eskubide eta betebeharrak eta funtzionamendu arauak

3.1. Ikasleen bete-behar eta eskubideak

-Ikasleen eskubide eta betebeharrei nahiz diziplina araubideari dagokienez, abenduaren 14ko 417/92 Foru Dekretuan edo hortik aurrerakoetan agintzen denari begiratuko zaio.

- Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeak hartuko ditu ikasleen zehapen oso larriei buruzko erabakiak.

-Ikasleek 2. zikloaren bukaeran eskuratuko dute Lakuntzako San Saastin Musika Eskolako ikasketa ziurtagiria, beti ere ziklo horietan eskolan ematen diren nahitaezko irakasgai guztiak gainditu badituzte.

3.2. Ikasleen gurasoen eskubideak.

Eskola-elkarteko kideak diren aldetik, honako hauek dira:

-Seme-alabek hezkuntza osoa hartzea, ikastetxearen berezko izaeran definitu bezala.

-Ikastetxeak nola funtzionatzen duen eta proiektu pedagogikoa nola gauzatzen den jakitea.

-Seme-alabek arlo akademikoetan nahiz heldutasun sozialean erdietsitako garapenaren berri aldian-aldian jasotzea.

-Irakasleekin harremana izatea, ikasleen osabetzko heziketa elkarrekin sustatzeko, Erregelamenduak ezarritako guztiari jarraikiz.

-Ikastetxearen kudeaketan parte hartzea, Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeko beren ordezkarien bidez.

-Ikastetxean bilerak egitea, beren seme-alaben hezkuntzari dagozkion gaiez aritzeko, zuzendariak aurretik baimena emanda.

-Proposamenak edo errekursoak aurkeztea, kasu bakoitzean zer gobernu organo lagun bakarreko nahiz kolegiaturi dagokion, harexeri.

3.3. Ikasleen gurasoen betebeharrak.

Honako hauek dira ikasleen gurasoek ikastetxeari begira dituzten betebeharrak:

-Ikastetxearen hezkuntza eredia ezagutu eta errespetatzea.

-Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeak edo bestelako kudeaketa organoek deitutako bileretan parte hartzea.

-Eskola-elkarteko gainerako estamentuekin lankidetzan aritzea, ikastetxearen mantenimendurako.

3.4. Irakasleen eskubideak.

-Langile guztiei aitorturiko lan eskubide guztiak.

-Klaustroko eta Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeko kide izatea.

-Eskola-elkarteko kide guztien begirunea izatea.

-Eskolako instalazioak eta materiala erabiltzea, finkaturiko ordutegiak eta arauak gordez.

-Klaseen errekupeazioa finkatzea. Ikasle bat falta bada, horrek ez du berez ekarriko klasea errekupeatu beharra.

-Lanbidean prestatu eta hobetzea ikastetxearen barnean, beti ere hori lortzeko asmoz eskolan programaturiko jarduerak antolatzerik dagoenean eta aurrekontuetan aurreikusia badago.

-Irakasle bakoitzak ikastorduak prestatzeko honako orduak izanen ditu: 30 ordutatik, 25 ikastorduak eta 5 ikastorduak prestatzeko orduak.

3.5. Irakasleen betebeharrak.

-Eskola-orduetan ikastetxera garaiz etortzea.

-Irakasle guztiek behar den tituluaren jabe beharko dute izan.

-Arrazoituriko edozein zio dela eta, etortzerik ez badu, Zuzendaritzari aldez aurretik eman beharko dio horren berri, baita haren baimena erdietsi ere, eta bere ordeztaritu den irakaslearendako jarraibideak utzi, lan arloko legeriari jarraikiz.

-Ikaslea berandutuz gero, irakasleek 10 minutuz itxoinen diote, finkatutako ordutegiari jarraikiz.

-Ikasleei begirunea erakustea eta ikasleak hobeki ezagutzeko haiek entzun eta haiekin mintzatzea, finkatutako ordutegiaren barrenean.

-Ikasleen hutsegiteak kontrolatzean eta horien justifikazioa eskatzea.

-Ikasle batek uzten badu, denbora hori beste ikasle batzuekin edo beste jardura batzuetan erabiliko du irakasleak, ematen duen gaiarekin ikusteko zuzena baldin badute (klaseak, materiala, etab. prestatzea).

-Klaustroak ezarritako irizpideei jarraikiz eta ezarritako datak betez ikasleak ebaluatzea. Irakasleek ondotik adieraziko den bezala kalifikazioak emateaz landara, beren hiruhileko txostena prestatzen ahal dute, ikasleen garapena azaltzearren. Txosten horiek gurasoek sinaturik itzuliko dira. Ebaluazio irizpideak:

-Musika-hizkuntzan eta ahots-taldean hasteko irakasgaiak.

Kalifikazioak honela jarriko dira:

Hiruhileko kalifikazioak:

-A.E. (aurrerapen egokia).

-H.B. (hobetu beharra).

Azken kalifikazioak:

-Gai.

-Ez gai.

Gainerako irakasgaietarako.

Kalifikazioak, hiruhiletakoak nahiz azkenak, honela paratuko dira:

-0-5: suspentso.

-5-6: nahikoa.

-6-7: ongi.

-7-9: oso ongi.

-9-10: bikain.

-Klaustroetara eta bileretara joatea, haietan atxikirik badaude, beti ere lanorduetan egiten badira.

-Klaustroan eta Musika Eskolako Kudeaketa Pedagogikorako Batzordean edo Gobernu Batzordean hartutako erabakiak errespetatu eta betetzea.

-Beren irakasgaia programatzea, klaseak prestatzea, maila eta zikloko gainerako lankideekin koordinatzea, ikastetxeko planeko jarraibideei eta programa ofizialei jarraikiz.

-Irakaskuntza objektiboa eta dogmakeriarik ez doktrinarik gabea ematea, irakaslea hezkuntza sistemaren ardatzat hartzen duena.

-Ikasleen adierazpen askatasuna errespetatzea eta haien iritziak, proposamenak, erreklamazioak e.a. jaso eta zuzendariari, Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeari edo dagokionari helaraztea.

-Urtean gutxienez bi kontzertu prestatzea: eguberrietan bata eta kurtso bukaeran bestea.

3.6. Hutsegiteak, zehapenak eta arau-hausteak.

Hutsegite, zehapen eta arau-hausteei dagokienez, Irakaskuntza Pribatuaren IX. Hitzarmenari edo hurrengoei jarraituko zaie.

Ikasleendako zehapenak: Musika Eskolan ematen diren irakasgaietara huts egiteak eta gaizki portatzeak ondorio hauek izanen dituzte ikasleen kalifikazioan:

-Hiruhileko batean justifikatu gabeko hiru hutsegite egiten dituzten ikasleei (bestelako eskola jarduerak ez dira zurigarriztat hartuko) suspentso jarriko zaie, hutsegite horiek zer irakasgaitan egin diren eta hartantxe.

-Hiruhileko batean justifikatu gabeko lau hutsegite egiten dituzten ikasleei kalifikaziorik gabeko instrumentu edo ahots-taldeetan, suspentso jarriko zaie Instrumentua eta Musika Hizkuntza irakasgaietan.

3.7. Ez-irakasleen eskubideak eta betebeharrak.

Ez-irakasleen eskubide eta betebeharrez den bezainbatean, Irakaskuntza Pribatuaren Hitzarmenari jarraituko zaio.

3.8. Administrazioko langileak, eginkizunak, eskubideak eta betebeharrak.

-Lanpostuari dagozkion eginkizun guztiak eginen dituzte, baita langile-buruak emanak eta Musika Eskolako organo kolegiatuek ezarriak ere.

-Indarra duen lan legeriari lotuko zaizkio, beren eskubide eta betebeharrei dagokienez.

-Lanorduak ikastetxearen beharren ariora moldatuko dira.

3.9. Matrikulazioa. Deuseztapenak.

-Lakuntzan erroldaturik ez daudenak ikastetxean matrikulatu ahal izanen dira, Musika Eskolako Gobernu Batzordeak urteoro zehaztuko duen tasa berezia ordainduz gero.

-Instrumenturako, ikastetxean urri izan edo batere ez diren plazak osa daitezten, eta musika talde ezberdinetan parte hartu ahal izateko, instrumentu bakoitzerako matrikulazioa mugatuko da irakasleek dituzten ikasleen gaitasunera.

-Ikasleak ikastetxean segitzeko eskubidea galduko du, ikasturte batean musika-errendimendu txikia frogatzen bazaio. Dagokion tutoreak horretarako txostena egingen du ikastetxeko ikasketaburuarendako, eta honek, zuzendariaren ikus-onespenaz, Musika Eskolako Kudeaketa Pedagogikorako Batzordera igorriko du, balorazioa egin dezan.

-Errendimendu txikiagatik ikastetxetik kanporatu diren ikasleek aukera gutxiago izanen dute berriz ere sartzeko, sarrera eskabide berrien aldean.

-Matrikularen deuseztapena:eskaera aurkeztu beharko da abenduaren 15 baino lehenago, hala izan ezean ikasturte osoko kuotak ordaindu beharko dira

4.Ikastetxearen menpeko musika taldeen funtzionamendua

4.1. Kideak.

-Taldekoko zuzendari-arduradunak proposaturik zuzendaritzak baimentzen dituen salbuespenak izan ezik, taldeetako kide guztiek ikastetxean matrikulaturik egon behar dute, talde horretan jo behar duten instrumentuan.

-Taldekoko zuzendari-arduradunak izendatuko ditu taldekideak, bakoitzaren instrumentuko tutoreak proposaturik. Premiarik bada, hautapen proba erabiliko da horretarako.

-Matrikulazio berezia egin ahal izanen da ikastetxeko ikasle ohiendako, musika-talderen batean parte hartu nahi badute, aldeztu aurretik sartzeko proba eginda zuzendari-arduradunaren gainbegiradapean. Hark txostena luzatuko dio ikastetxeko zuzendariari. Horrela eginez gero, zenbateko berezia kobratuko da.

-Taldekideek ez dute inola ere diru ordainik izanen beren kontzertuengatik. Haien kaxea, nagusiki, musika eta kultur alorrean bestelako jarduerak egiteko erabiliko da.

-Taldekoko zuzendari-arduradun bakarrak ikasturtean egin beharreko lan eta jarduera plangintza aurkeztuko du.

4.2. Taldekideen eskubideak.

-Programatzen diren kontzertuak egiteko bidaia eta emanaldietan parte hartzea.

-Ateraldietan, etxetik kanpora lo egin behar bada, horretarako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten tokietan egingen da (higienea, erosotasuna, etab.).

-Taldekoko arduradunek zaintzea, etxetik kanpo egiten diren egonaldiak ahalik eta modu egokienean egin daitezten.

-Beren emanaldietan irabazten diren diruak ikastetxeak norako dituen, horren berri izatea.

4.3. Taldekideen betebeharrak.

-Taldekide arduradunarengandik hartzen dituzten jarraibideei beti kasu egitea.

-Egiten diren entseguetara joatea eta haietan jotzea.

-Programatzen diren kontzertu eta emanaldietara joatea eta haietan jotzea. Taldekideren bat entsegu edo kontzertuetara joaten ez bada, komeni diren zehapen neurriak hartuko ditu irakasleen klaustroak.

-Egiten diren ateraldi edo egintza guztietan, portaera egokia izan beharko da, ikastetxearen izenak kalterik har ez dezan.

-Entseatu beharreko obra guztiak ikastea, eta entsegua edo kontzertua egiteko beharrezko diren instrumentu edo materialak prest edukitzea.

-Entseguetara joaten ez den ikasleak edo obrak behar bezala prestatzen ez dituenak kontzertuetan parte hartzeko eskubidea galduko du, eta egiten diren bidaietatik kanpo geldi daiteke.

-Halaberean, suspentso jarriko zaio Instrumentua eta Musika-hizkuntza irakasgaien.

-Kontzertuak emateko egiten diren ateraldiek, kontzertua bera emateaz gain, taldekideen arteko elkarbizitza eta kultura aldetik aberastea izanen dute xede.

5.Egutegia eta antolakuntza akademikoa

-Irakasleendako ikasturtea irailaren 15ean hasiko da, eta ekainaren 30ean akituko. Iraileko bigarren hamabostaldia ikasturtea abiarazteko erabiliko da eta ekaineko bigarren hamabostaldia, berriz, azterketak egiteko eta ikasturtea akitzeko.

-Ikasleendako klaseak urriaren 1etik ekainaren 15a arte emanen dira (biak barne).

-Irakaskuntza orokorrean herriko eta inguruko ikastetxeetan zer egutegia den, hareekin bat izanen da Musika Eskolako, eta Kudeaketa Pedagogikorako Batzordeak onetsi beharko du.

-Irakasgai bakoitzean gutxienez ere 32 saio emanen dira.

-Ikasgela bakoitzeko, gehienez ere 16 ikasle eta gutxienez ere 6.

-Ikasle helduak lehenagotik diren taldeetan sartuko dira.

-Hastapeneko maila bakarra izanen da, Musika-hizkuntzako 1. mailan hasi aitzin.

-Musika Hizkuntzako sei maila izanen dira. Maila bakoitzean 2 ordu emanen dira astean.

-3 eta 6. mailak akituta, ikasleek ziklo bukaera azterketa egin beharko dute.

-Ahots-taldea astean ordu batez emanen da, Musika-hizkuntzako 1 eta 2. mailetan, eta denetara irakasgai osagarritzat hartuko da (talde bat bakarra).

-Tresna taldea astean 45 minutuz emanen da, Musika hizkuntzako 3 eta 4 mailetan eta astean 45 minutuz Musika hizkuntzako 5, 6 eta ondorengoetan.

-Ikasle bakoitzak tutoretza ordu baterako eskubidea izanen du irakasgai nagusietarako, hau da, Musika-hizkuntza eta instrumenturako. Irakasgai osagarriak eskubide horretatik kanpo daude: Ganbera, Orkestra, Banda, Ahots-taldea, etab.

REGIMEN INTERNO FUNCIONAMIENTO ESCUELA MUSICA: INDICE

1. Definición de la Escuela de Música

1.1. Objetivos pedagógicos del Centro.

1.2. La comunidad educativa.

1.3. Los bienes de uso del Centro.

1.4. Ambitos aplicación de este Reglamento de Régimen Interior.

2. Órganos de la Función Pedagógica

- 2.1. Órganos del Centro.
 - 2.2. Competencias del director.
 - 2.3. Suplencias del director
 - 2.4. Competencias del Jefe de Estudios.
 - 2.5. Claustro de Profesores.
 - 2.6. De las reuniones de padres de alumnos.
3. Derechos y deberes de la Comunidad Educativa y Normas de funcionamiento
- 3.1. De los derechos de los padres de alumnos.
 - 3.2. De las obligaciones de los padres de alumnos.
 - 3.3. De los derechos de los profesores.
 - 3.4. De los deberes de los profesores.
 - 3.5. Faltas, sanciones e infracciones.
 - 3.6. Derechos y deberes del personal no docente.
 - 3.7. Personal administrativo, funciones, derechos y deberes.
 - 3.8. Matriculación. Anulaciones.
4. Funcionamiento de los grupos musicales dependientes del Centro
- 4.1. Componentes.
 - 4.2. Derechos de los componentes.
 - 4.3. Deberes de los componentes.

1. Definición de la Escuela de Música

1.1. Objetivos pedagógicos del Centro.

La Escuela de Música se crea para atender la demanda musical que existe en Lakuntza, tanto de los alumnos que desean recibir una educación musical como complemento a su formación general, como de los que, por su capacidad y dedicación, desean ampliar esa formación con miras a una futura salida profesional.

En el Plan Pedagógico se recogen los contenidos pedagógicos que deberán impartirse en la Escuela.

-Las actividades educativas han de estar orientadas al desarrollo de la personalidad del alumno, al modo de vida democrático y a una formación educativa que facilite la integración del alumno en la vida activa y en igual de oportunidades.

-La educación se desarrollará en un marco de tolerancia y libertad, de respeto y participación democrática.

-El Centro deberá desarrollar la sensibilidad musical del alumno, la destreza técnica, así como la capacidad creativa del mismo.

-El Centro impulsará la cultura autóctona

-Uno de los objetivos del Centro será la de enriquecer la vida cultural de Lakuntza

1.2. La comunidad educativa.

-La comunidad escolar la componen alumnos, padres, profesores y personal no docente. Se posibilitarán y facilitarán las relaciones entre los distintos componentes de la misma.

-Todos los miembros de la Comunidad Escolar tienen derecho a participar en las decisiones de la Junta de Gestión Pedagógica a través de sus representantes.

-Todos tienen derecho a expresar sus opiniones y a defenderlas guardando el máximo respeto a la dignidad de las personas.

-El Centro procurará insertarse en la comunidad a la que sirve, conectando con otras instituciones educativas, culturales y sociales.

-La actividad educativa se orientará hacia la preparación para la paz, la colaboración y a la solidaridad entre los pueblos y el respeto a la naturaleza.

1.3. Los bienes de uso del Centro.

-La gestión de los bienes propiedad de la Escuela de Música corresponde a la Junta de Gobierno de la Escuela de Música. Los integrantes de la Comunidad Educativa tienen el deber de respetar y conservar este patrimonio procurando su máximo aprovechamiento.

-Salvo autorización del Director del Centro, está prohibido ceder o fotocopiar partituras y arreglos del mismo para entregar a personas ajenas o no al Centro cuyo fin sea la utilización de las fotocopias fuera del Centro.

1.4. Ambitos aplicación de este Reglamento de Régimen Interior.

-Las normas de este Reglamento de Régimen Interior afectan a todos los miembros de la comunidad escolar y tienen vigencia en todo el ámbito físico del Centro y en cualquier lugar en que se encontrasen los profesores, personales de servicios, alumnos o padres de alumnos en el desarrollo de actividades organizadas por el Centro.

-Este Reglamento de Régimen Interno tendrá vigencia indefinida desde el momento de su aprobación y mientras no sea modificado o revisado por la Junta de Gobierno de la Escuela de Música.

2. Órganos de la Función Pedagógica

2.1. Órganos del Centro.

El Centro contará con los siguientes Órganos:

-Junta de Gestión Pedagógica.

-Director.

-Jefes de Estudios.

-Claustro de Profesores.

-El Director del Centro será propuesto por el Claustro de los Profesores, aprobado su nombramiento por la Junta de Gestión Pedagógica y ratificado por la Junta de Gobierno de la Escuela de Música.

Su mandato será de dos años.

-El Jefe de Estudios y el Secretario serán nombrados por el Claustro de Profesores y ratificados por la Junta Pedagógica de la Escuela de Música.

Sus nombramientos duraran lo mismo que el del Director del Centro.

2.2. Competencias del director.

-Cumplir y hacer cumplir la normativa y ordenanzas.

-Dirigir y coordinar la actividad pedagógica del Centro.

-Ejecutar los acuerdos de los Órganos Colegiados en el ámbito de su competencia.

-Coordinar la participación de los distintos sectores de la comunidad escolar procurando los medios precisos para la más eficaz ejecución de sus respectivas atribuciones.

-Elaborar con el Claustro de Profesores la propuesta del plan anual de actividades del Centro.

-Promover e impulsar las relaciones del Centro con las instituciones y centros de trabajo de su entorno: con los organismos públicos que lleven a cabo las tareas de responsabilidad en materia educativa, grupos locales (danzas, comparsa de gigantes,...)

-Suministrar la información que le sea requerida por los órganos colegiados o unipersonales directivos y por las instancias educativas competentes.

-Garantizar la información sobre la vida del Centro a los distintos sectores de la comunidad escolar y a sus organizaciones representativas.

-Facilitar el derecho de reunión de profesores, personal administrativo y de servicios, alumnos y padres de alumnos, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley Orgánica del Derecho a la Educación.

-Dirigir la programación anual de las distintas especialidades elaboradas por el Claustro de Profesores.

2.3. Suplencias del Director.

Por motivos de fuerza mayor, el Director delegará en el Jefe de Estudios todas sus competencias mientras dure esta situación.

2.4. Competencias del Jefe de Estudios.

-Coordinar y velar por la ejecución de las actividades de carácter académico de profesores y alumnos, en relación con la programación anual de actividades del Centro, de acuerdo con las orientaciones del Director.

-Confeccionar los horarios académicos en la colaboración con los estantes órganos unipersonales y velar por su estricto cumplimiento.

-Coordinar las actividades de orientación, así como las actividades de los servicios de apoyo que incidan en el Centro, de acuerdo con las orientaciones del Director.

-Velar por el cumplimiento de los criterios que fije el Claustro de Profesores sobre la labor de evaluación de los alumnos.

-Custodiar y disponer la utilización del material didáctico.

-Programar y coordinar el desarrollo de las actividades escolares complementarias siguiendo las directrices del Claustro de Profesores y Junta de Gestión Pedagógica.

-Coordinar, de acuerdo con las orientaciones del Director, el funcionamiento de los distintos seminarios y tutorías así como la programación educativa.

-Organizar los actos académicos.

-Cualquier otra función que le pueda ser encomendada por el Director dentro de su ámbito de competencia.

2.5. Claustro de Profesores.

-Estará integrado por la totalidad de los profesores que prestan servicios en el Centro y será presidido por el equipo directivo.

Competencias del Claustro de Profesores:

-Proponer a la junta de Gestión Pedagógica la programación de horarios, organización de grupos de alumnos, distribución de la enseñanza de las materias y grupos y otras responsabilidades de los profesores.

-Fijar y coordinar criterios sobre la evaluación y recuperación de alumnos.

-Proponer el nombramiento del Director de la Escuela de Música.

- Proponer iniciativas en el orden de la experimentación o investigación pedagógica y didáctica.
- Valorar los resultados y marcha de cada curso realizando una sesión especial sobre este tema al finalizar el curso.
- Hacer propuestas sobre introducción de nuevas materias o asignaturas, y sobre otras actividades que repercutan en la vida académica.
- Elevar propuestas a la Junta de Gestión Pedagógica para el desarrollo de las actividades complementarias y extraescolares, viajes, actos académicos, etc.

Régimen de funcionamiento

- Las reuniones del Claustro de Profesores seguirán las Normas de Funcionamiento que se indican a continuación:
- La asistencia al Claustro es obligatoria para todos sus miembros. En caso de ausencia de quórum en 1.º convocatoria, la 2.º se entenderá hecha para media hora más tarde.
- El equipo directivo convoca y preside las reuniones. La convocatoria la hace con 48 horas de antelación a la fecha de la reunión y adjuntará el orden del día.
- El Director podrá invitar a expertos en temas educativos a participar en las reuniones en calidad de asesores.
- El Claustro adoptará las decisiones por mayoría simple.
- El Claustro se reunirá, como mínimo, una vez al mes y siempre que lo convoque el equipo directivo o lo solicite un tercio, al menos, de sus miembros. En todo caso, será preceptiva una sesión de Claustro al principio del curso y otra al final del mismo.
- Un miembro del Claustro actuará como Secretario y levantará acta de la reunión, que deberá ser aprobada en la reunión siguiente y tendrá el visto bueno del equipo directivo.

2.6. De las reuniones de padres de alumnos.

- El Director convocará al final del curso una reunión general de Padres de carácter informativo.
- La Asociación de Padres puede utilizar los locales del Centro para sus actividades siempre que no interfieran en el normal desarrollo de las actividades escolares. Es condición la previa comunicación al Director.

3. Derechos y deberes de la Comunidad Educativa y Normas de funcionamiento

3.1. Derechos y deberes de los alumnos

- En lo referente a los derechos y deberes de los alumnos, así como del régimen disciplinario nos atendremos a lo estipulado en el Decreto Foral 417/92, de 14 de diciembre, o sucesivos.

-Las decisiones sobre sanciones muy graves a alumnos las tomará la Junta de Gestión Pedagógica del Patronato Municipal de Música.

-Los alumnos obtendrán el Certificado de Estudios de la Escuela de Música de Lakuntza al finalizar el 2.º ciclo en el caso de haber aprobado todas las asignaturas obligatorias que se imparten en la escuela durante esos ciclos.

3.2. De los derechos de los padres de alumnos.

Como miembro de la comunidad educativa son los siguientes:

-Que sus hijos reciban una educación integral tal como está definida en el carácter propio del Centro.

-Conocer el funcionamiento del Centro y la forma en la que se aplica el Proyecto Educativo.

-Recibir información periódica sobre el progreso de los propios hijos en los aspectos académicos y en el proceso de maduración afectiva social.

-Mantener relación con los Profesores, en orden a promover conjuntamente la formación integral de los alumnos de acuerdo con cuanto establece el Reglamento.

-Participar en la gestión del Centro a través de sus representantes en la Junta de Gestión Pedagógica.

-Celebrar reuniones en el Centro para tratar asuntos relacionados con la educación de sus hijos, previa autorización del Director.

-Presentar propuestas o recursos al Órgano de Gobierno Unipersonal o Colegiado que corresponda en cada caso.

3.3. De las obligaciones de los padres de alumnos.

Los deberes de los Padres de Alumnos en relación con el Centro son:

-Conocer y respetar el modelo educativo del Centro.

-Participar en las reuniones convocadas por la Junta de Gestión Pedagógica, o de otros órganos de dirección.

-Colaborar con los demás estamento de la Comunidad Educativa en el mantenimiento del Centro.

3.4. De los derechos de los profesores.

-Todos los derechos laborales reconocidos al conjunto de los trabajadores.

-A formar parte del Claustro y Junta de Gestión Pedagógica.

-A ser respetados por todos los miembros de la comunidad educativa.

-A utilizar las instalaciones y material del Centro, respetando horarios y normas establecidas.

-A fijar la recuperación de las clases. La ausencia de un alumno no implicará la recuperación de una clase.

-A la renovación y perfeccionamiento profesional dentro del Centro, siempre que sea posible la organización de las actividades para tal fin y estén previstas en los Presupuestos.

-Cada profesor tendrá derecho a horas no lectivas que quedarán fijadas de la siguiente manera: de 30 horas, 25h serán lectivas y 5h serán no lectivas.

3.5. De los deberes de los profesores.

-Asistir puntualmente al Centro, dentro del horario escolar.

-Cuando por cualquier motivo justificado se tenga prevista la no asistencia, deberá comunicarse y obtener la necesaria autorización de la Dirección con antelación, y dejar las orientaciones precisas para el profesor que le sustituya, dentro de la legalidad laboral.

-Los Profesores esperarán al alumno, en caso de retraso de éste último, no más de 10 minutos, ateniéndose al horario previsto.

-Respetar a los alumnos, escucharles y dialogar con ellos, para un mejor conocimiento de los alumnos, dentro del horario establecido.

-Llevar el control de las faltas de asistencia a sus alumnos y exigir justificación de las mismas.

-Si un alumno se da de baja, este tiempo será empleado por el profesor en otros alumnos o en otras actividades que estén directamente relacionadas con las materias que imparte (preparación de clases, de material, etc.)

-Evaluar a los alumnos respetando los criterios fijados por el Claustro y cumpliendo las fechas establecidas. Los profesores, además de emitir las calificaciones en la forma que a continuación se va a exponer, podrán confeccionar un informe trimestral propio en el que explique el desarrollo del alumno. Dichos informes se devolverán firmados por los padres Criterios de evaluación:

-Asignaturas de Iniciación en Lenguaje Musical y Conjunto Vocal.

Las calificaciones se pondrán de la siguiente forma:

Calificaciones trimestrales:

- P.A. (prograsa adecuadamente).

-N.M. (necesita mejorar).

Calificaciones finales:

- Apto.

-No apto.

-Para el resto de asignaturas.

Las calificaciones, trimestrales y finales, se pondrán como sigue:

- 0-5: Suspenso.
- 5-6: Aprobado.
- 6-7: Bien.
- 7-9: Notable.
- 9-10: Sobresaliente.

-Asistir a los Claustros y reuniones a las que estén adscritos siempre y cuando se haga dentro del horario laboral.

-Respetar y cumplir los acuerdos tomados en el Claustro y Junta de Gestión Pedagógica o Junta de Gobierno de la Escuela de Música.

-A programar su materia, preparar sus clases, coordinar con los demás compañeros de nivel y ciclo, siguiendo las directrices del Plan de Centro y programas oficiales.

-Impartir una enseñanza objetiva, sin dogmatismo ni adoctrinamientos, que contemplen al alumno como el centro del sistema educativo.

-Respetar la libertad de expresión del alumno, recogiendo sus opiniones, propuestas, reclamaciones... para trasladarlas al Director, Junta Pedagógica o a quien corresponda.

- A preparar y a asistir al menos a dos conciertos al año, que serán el concierto de Navidad y el de Fin De Curso.

3.6. Faltas, sanciones e infracciones.

En lo referente a "Faltas, sanciones e infracciones" nos atenderemos a lo estipulado en el "IX Convenio de la Enseñanza Privada" o sucesivos.

Sanciones a los alumnos: Las faltas de asistencia a las materias que se impartan en la Escuela de Música así como el más comportamiento influirán sobre la calificación de los alumnos de la siguiente forma:

-Aquellos alumnos que durante un trimestre hayan cometido 3 faltas de asistencia sin justificar (otras actividades escolares no se entienden como justificación) serán suspendidos en la asignatura en que hayan cometido dichas faltas.

-Aquellos alumnos que durante un trimestre hayan cometido 4 faltas de asistencia sin justificar en agrupaciones instrumentales o vocales en los que no haya calificación obtendrán suspenso en las asignaturas de Instrumento y Lenguaje Musical.

3.7. Derechos y deberes del personal no docente.

En lo referente a "Derechos y deberes del personal no docente" nos atenderemos a lo estipulado en el "Convenio de la Enseñanza Privada".

3.8. Personal administrativo, funciones, derechos y deberes.

- Realizará todas las funciones propias del puesto de trabajo, al igual que las asignadas por el jefe de personal, y las establecidas por los órganos colegiados de la Escuela de Música.
- Estará sujeto a la Legislación Laboral vigente en sus derechos y obligaciones.
- Su horario se ajustará a las necesidades del centro.

3.9. Matriculación. Anulaciones.

- Las personas no empadronadas en Lakuntza podrán matricularse en el Centro pagando una tasa especial que concretará cada año la Junta de Gobierno de la Escuela Municipal de Música.
- Con el fin de que se completen plazas de instrumento que escasean o no existen en el Centro, y para poder formar diferentes conjuntos y agrupaciones musicales, se limitará la matriculación de cada instrumento a la capacidad del alumnado que tenga el profesorado.
- El alumno perderá su derecho a continuar en el Centro cuando durante un curso se compruebe su bajo rendimiento musical. Para ello, su tutor correspondiente emitirá un informe en ese sentido al Jefe de Estudios del Centro, el cual, con el visto bueno del Director, se remitirá a la Junta de Gestión Pedagógica de la Escuela de Música para su valoración.
- Los alumnos que, por su bajo rendimiento, hayan sido excluidos del Centro, estarán en inferioridad de condiciones para volver a entrar con respecto a las nuevas solicitudes de ingreso.
- Anulación de matrícula: Para anular la matrícula se deberá presentar la solicitud por escrito antes del 15 de diciembre. En caso contrario, se deberán abonar las cuotas del curso entero.

4. Funcionamiento de los grupos musicales dependientes del Centro

4.1. Componentes.

- Salvo excepciones que autorice el Director a propuesta del Director-responsable del grupo, todos los componentes de los mismos deberán estar matriculados en el centro en el instrumento que en dicho grupo vayan a tocar.
- Los componentes serán nombrados por el Director-responsable del grupo a propuesta de los respectivos tutores de instrumentos, utilizando en caso necesario algún tipo de prueba selección, que para dicho fin se organice.
- Se podrá realizar una matriculación especial para ex-alumnos del Centro y que deseen participar en alguna de las agrupaciones musicales, previa prueba de ingreso que será supervisada por el Director-responsable quien emitirá un informe al Director del Centro. En este caso se cobrará una cuantía especial.

-En ningún caso los componentes de dichos grupos recibirán retribución económica por sus conciertos, destinándose al caché de los mismos, fundamentalmente, para la realización de otras actividades músico-culturales.

-Cada Director-responsable del grupo presentará un programa de trabajo y actividades a realizar durante el curso.

4.2. Derechos de los componentes.

-A participar de los viajes y actuaciones que con el fin de la realización de conciertos se programen.

-Las salidas que se realicen en las que sea necesario pernoctar fuera de su domicilio, se efectuará siempre en lugares que reúnan las condiciones básicas para dicho fin (higiene, confortabilidad, etc.).

-Ser atendidos por los responsables de los grupos con objeto de que las estancias que se realicen fuera de sus domicilios e hagan de la forma más idónea posible.

-Ser informados del destino que el Centro hace con los ingresos recibidos por las actuaciones de los mismos.

4.3. Deberes de los componentes.

-Atender, en todo momento, las instrucciones que reciban de los responsables del grupo.

-Asistir y tocar en los ensayos que se realicen.

-Asistir y tocar en los conciertos y salidas que se programen. Si un componente no asiste a ensayos o conciertos el Claustro de Profesores tomará las medidas sancionadoras pertinentes.

-El comportamiento en todas las salidas o actos que se realicen deberá ser el adecuado para que no incida negativamente en el prestigio del Centro.

-El estudio de las respectivas obras que se vayan a ensayar, teniendo siempre a punto todos los instrumentos o materiales que son necesarios para la realización del ensayo o concierto.

-El alumno que falte a los ensayos o no prepare convenientemente las obras perderá el derecho a actuar en los conciertos y podrá no ser incluido en los viajes que se realicen.

-Asimismo, obtendrá la calificación de suspenso en la asignatura de Instrumento y Lenguaje Musical.

-Las salidas que se realicen para efectuar los conciertos tendrán como finalidad, además de la realización del propio concierto, el desarrollo de la convivencia entre los componentes del grupo y enriquecimiento cultural de los mismos.

5. Calendario y organización académica

- Para los profesores del curso comenzará el 15 de Septiembre y finalizará el 30 de junio. La segunda quincena de Septiembre la utilizarán para poner en marcha el curso, y la segunda quincena de Junio para realizar los exámenes y cerrar el curso.
- Las clases a los alumnos se impartirán desde el 1 de octubre al 15 de junio.
- El calendario se confeccionará de acuerdo con el existente para la enseñanza general de los centros de la localidad y deberá ser aprobado por la Junta Pedagógica.
- El mínimo de sesiones de cada asignatura para un curso será de 32.
- Un máximo de 16 alumnos y el mínimo de alumnos por aula será de 6.
- Los alumnos adultos se integrarán en los grupos existentes.
- Habrá un sólo curso de iniciación antes de comenzar el 1.º curso de Lenguaje Musical.
- Existirán 6 cursos de Lenguaje Musical. Se impartirán 2 horas semanales para cada curso.
- Al finalizar el 3º curso y el 6º curso, los alumnos deberán superar un examen de fin de ciclo. Superados los mismos se entregará el diploma acreditativo.
- El Conjunto Vocal se impartirá durante 1 hora a la semana en los cursos 1º y 2º de Lenguaje Musical, y será considerada a todos los efectos asignatura complementaria. (Un grupo únicamente)
- Cada alumno tendrá derecho a una hora al año de tutoría para las asignaturas principales, es decir, Lenguaje Musical e instrumento. Están excluidas de este derecho las asignaturas complementarias: Cámara, Orquesta, Banda, Conjunto Vocal, ...)